

## IBILGAILUEN SAILKAPENA

### AP-1 / AP-8

2010eko ekainaren 15eko 4/2010 Foru Dekretu Araua (1. Artikulua)

#### ARINAK

- a) Motozikletak, sidekarrarekin edo gabe.
- b) Turismoak, atoirik gabe.
  - c) Turismoak atoiarekin, ardatzetan gurpil bikirik gabe.
- d) Furgoiak eta furgonetak, 2 ardatz eta 4 gurpil dituztenak.

#### ASTUNAK (I)

- a) Turismoak, 2 ardatz eta 4 gurpilekoak, gurpil bikiko ardatz bat duen atoiarekin.
- b) Furgoiak eta furgonetak, 2 ardatz eta 4 gurpilekoak, gurpil bikiko ardatz bat duen atoiarekin.
- c) Kamioiak eta autobusak, 2 ardatzekoak, ardatz bakarreko atoiarekin edo gabe.
- d) Kamioiak eta autobusak, 3 ardatzekoak.

#### ASTUNAK (II)

- a) Turismoak, 2 ardatz eta 4 gurpilekoak, 2 ardatz edo gehiagoko atoiarekin eta gutxienez gurpil bikiko ardatz batekin.
- b) Furgoiak eta furgonetak, 2 ardatz eta 4 gurpilekoak, 2 ardatz edo gehiagoko atoiarekin eta gutxienez gurpil bikiko ardatz batekin.
- c) Kamioiak eta autobusak, atoiarekin edo gabe, guztira 4 ardatz edo gehiago dituztenak.

### A-636

4/2020 Foru Araua, azaroaren 6koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko A-636 autobian Beasain-Bergara arteko zati batzuk erabiltzeagatik ordainduko den kanona arautzen duena (9. Artikulua)

#### ARINAK

3,5 tonako edo gutxiagoko gehieneko masa baimendua (GMB) duten ibilgailu motordunak.  
Salbuespena: motozikletak (3. Artikulua)

#### ASTUNAK 1

3,5 tona baino gehiagoko eta 12 tona baino gutxiagoko gehieneko masa baimendua (GMB) duten ibilgailu motordunak.

#### ASTUNAK 2

12 tonako edo gehiagoko gehieneko masa baimendua (GMB) duten ibilgailu motordunak.

### N-I / A-15

5/2021 Foru Araua, abenduaren 3koa, Gipuzkoako A-15 eta N-I errepideetan salgaien garraioan aritzen diren ibilgailu astunek errepidea erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanona ezartzen duena (7. Artikulua)

#### ASTUNAK 1

3,5 tonatik gorako eta 12 tonatik beherako baimendutako gehieneko masa duten ibilgailuak.

#### ASTUNAK 2

12 tona edo gehiagoko baimendutako gehieneko masa duten ibilgailuak.